

ERDU PRESS

ARRIETA • FRUIZ • GAMIZ-FIKA • MEÑAKA
EUSKARA ZERBITZUA

16. zkia.

2004ko maiatza



JAIZTARAKO BEROTZEN

AZKEN NOBEDADE GUZTIAK GURE UDAL LIBURUTEGIETAN

Gure udal liburutegiak liburu gehiagoz hornidu dira, liburu horreen artean ume, gaztetxu zein helduentzako azken nobedadeak dagoz. Irakurtea gustetan jakonak altxor txikitxo bat dauko herrian bertan, eta irakurtea gustetan ez jakonak, besterik ez bada be, liburutegia bisitatzeko gonbita.

Hona gure udal liburutegietako ordutegiak:

Meñakakoa: arrastietan 5etatik 7 etara, eta zapatu goizetan.

Arrietakoa: arrastietan 5etatik 7etara.

Fruizkoa: arrastietan 5etarik 7etara.

Gamiz-Fikakoa: bulego orduetan (Informazino gehiagorako 94 615 31 14).

EUSKARAZ BIZITZEKO URTEERA GAZTEENTZAT

Arrieta, Fruiz, Gamiz-Fika eta Meñakako Udalek gure herrietako gazteentzako urteera antolatuko dabe udan. Urteera Bidarrainera (Nafarroa Behera) egingo da, garrilaren 17tik 18ra. Eta urteera horregaz lortu gura dana da gure herrietako gazteen arteko hartu-emonetan euskararen erabilera sustatzea eta indartzea.

- Urteera joateko baldintzak: 16tik 30 urtera eukitea.
- Euskaraz jakin eta egitea.

UDAL ARTXIBATEGIAREN INFORMATIZAZINOA

Administrazioan agiriak egiten da batez be behar; udal batek herritarrak zein gainerako udal eta enpresak daukoan hartu-emonen oinarri-oinarrian beti dago eta agiriren bat. Gura udalak izan txikiak diran arren, handia da bertan dagoen agiri kopurua. Gaur egun teknologia barriek eskaintzen dabezan abantaila etekina atera gurean, Arrietako Udalak artxibategiak informatizatu egin dauz. Informatizazino horrek, besteak beste, udal agiri guztiak gaika eta urteka sailkatuta eukiten eta edozein gestino arinago eta modu eraginkorragoan egiten laguntzen dau.

ATSEDENLEKUAK HOBETUTEN

Batez be uda partean, hainbat jente joaten da egun pasa Landaguren eta Otzagaraiko atsedenekuetara. Hori kontuan izanda, Arrietako Udalak aitatutako atsedeneku bi horreetan arbolak ipintzea pentsatu dau. Izan be, gauza ederra da gerizpea udan.



SENDERISMOA EGITEKO BIDEAK

Arrietako Udalak Elorriatik Ametxa gainera doan bidea senderismoa egiteko egokitu dau. Oinezkoentzako bide alternatibo horrek aukera polita eskainiko dau oinez ibilteko, kirola egiteko... eta, bide batez, bertoko parejeen edertasunaz gozatu teko.

MEÑAKA

Herriko tabernea martxan



Behin Herriko Tabernea barrizteko beharrak amaituta, Herriko Tabernea eta hari deusola dagoan etxebizitza adjudiketako lehiaketa publikoaren prozedura amaitu da.

Halandaze, konporazino honek ezarri gura izan dau zeintzuk izango diran hemendik aurrera Herriko Taberna batek euki beharreko ezaugarriak eta bete beharreko zereginak.

Gauzak horrela, udalak gura izan dau Herriko Tabernea gizarte bizitzearen topagune bat izatea, hau da, hurreko toki atsegin eta euskalduna, herriko jai eta ospakizunetan parte hartuko dauana; era berean, jentea erakarteko gauza izango dan taberna bat eratu gura izan dogu, barra zerbitzu egokia, menuak eta kazolatxoak eskainiko dirala ziurtatuz.

Meñaka Iparraldeko ikastolen alde

Aurreko maiatzaren 9an, Iparraldeko ikastolen aldeko Herri Urrats jaialdia ospatu zan Senpereko laku eta landa ikusgarrietan. Halan, ekimen honeri lagundu gurean, udalak beharrezko txangoa bideratu eta jai honetara 32 meñakar hurreratu ginan.

Giro euskaldun eta ezin hobez gozatu eta ederto pasatu ostean, etxerako bidea hartu genduan, Seaska Iparraldeko ikastolen erakundeari gure laguntzinoa emon eta gero.



Bagilaren 5 eta 6an Meñakabarrenako jaiak



Urte biren ostean, aurtan be Meñakabarrenako jaiak ospatuko dira bagilaren 5ean eta 6an; horrela, zapatu ilundian José Luis Butronek aurreko urteetan jaietan grabaturiko bideoen emonaldi bat izango da, bai eta txitxiburduntzia be. Hurrengo egunean, bagilaren 6an, mezearen ostean, herritarrek **antxinako eran dantzatuko daben erronomia**; ikuskizunaz gozatu eta gero, zahagiko ardao eta pintxoak bananduko dira dogan idi gurdi batetik, txalapartari eta soinuarien doinuak nahiz bertsolarien zirikadak entzuten doguzan bitartean. Arratsaldez eta jaiari amaiera emoteko, argazki erakusketa, argazkirik onenaren sari banaketa, txokolatada eta ume nahiz helduentzako mimo ekitaldi polit bat eukiko dogu.

Herriko frontoia osterara be abian

Bagilaren 1etik aurrera frontoia osterara be eukiko dogu guztiok erabilteko moduan. Halandaze, herritarrek erabateko lehentasuna euki eta asteburuak printzipioz herritarrentzako baino ez dira izango. Beraz, pelotalekua alokatzeko ordutegia ondokoa izango da: goizeko 10:00etatik gaueko 10:00etara. Orduak alokatzeko gestinoak eta beharrak Herriko Tabernearen bitartez gauzatuko dira. Hortaz, epe luzeko erreserba finkoak (kasu baterako, hilabetekoak edo sei hilabetekoak) udaletxean egin beharko dira, baina egun bateko erabilera zehatzak eskatu, giltzak hartu eta zerbitzua ordaintzeko lekua Herriko Tabernea izango da.



BERBALDIAK FRUIZEN

Fruizko Udalak gaur egungo hainbat gai jorratu eta herritarrei informazioa emateko berbaldi sortatxo bat antolatu dau aurtengo ekitaldirako.

Lehenengo berbaldia daborduko eginda dago, maiatzaren 14an izan zan, eta lehenengo horretarako gaurko gizarte eta bizimodua-gaz zerikusi handiko gai bat aukeratu eta landu zan, Anorexia, hain zuzen be. Gai horren ingurukoak azaltzen eta argitzen Amaia Gerekiz fruitarra izan zan.

Bigarren berbaldia maiatzaren 21ean egingo da eta Alzheimer gaixotasuna hartuko da hizpide. Izan be, Alzheimerra gero eta sarriago entzuten dan gatxa dogu eta nahiz eta, oraindik orain, zehatz jakin ez gaixotasun hori zelan osatu daitekean, zerk eragiten dauan...

ona eta beharrezkoa da gai horren gainean ahalik eta informazio gehien eukitea, gure ingurukoaren artean horrelako gaixotasunik suertatuz gero, zelan jokatu behar dan jakiteko. Gai honen gainekoak beste fruitar batek azalduko deuskuz, Aitziber Mandaluniz siko-
logoak, hain zuzen be.

Eta aurtengo berbaldi sortari amaiera emateko Andres Urrutia notario euskalduna izango dogu Fruizen bagilaren 11n. Berbaldi horretan herentzia eta testamentu kontuak zelan egin daitekezan, zeintzuk izaten diran arazo nagusiak... argituko dira.

Berbaldi guztiak Fruizko lehenengo eskoletan egingo dira, arrastiko 7retan, eta zer esanik ez, euskaraz izango dira.



Andrés Urrutia notario euskalduna, igaz Arrietan egindako berbaldian.

ARRIETA

GURE ERMITAK

Sasoï batean Arrietan hainbat ermita egon badira be, gaur egun, zutunik bi baino ez jakuz geratzen: San Luis eta San Kristobal ermitak, hain zuzen be. Lehenengoa Lekerika auzoan dago eta bigarrena Gerrekan. Baten bat, ermita horreetan aspaldian ez dalako egon edota inoiz be ez dalako egon, osteratxo bat egin gurean bada bil, bisitaldi hori egiteko aukera polita dauko datozen hiletan; izan be, batetik, bagilaren 20an San Luis eguna ospatuko da eta San Luis ermitan meza eta trikitixa izango dira; eta bestetik, uztailaren 11n San Kristobal eguna ospatuko da, eta ermitan meza, bakailao gozoa eta trikitixa egongo dira.



Aipatu barri doguzan egunez gain, bada gura dabenarentzat abuztuan be, ermiteei bisitalditxo egiteko atxakian, Arrietako parajeak ezagutzeko aukerea; izan be, abuztuaren 15ean, ermitetatik ibilaldia egiten da. Hiru orduko ibilaldia izaten da eta ibilbidea honakoa: Arrietako plazatik urten, San Kristobal ermita, San Luis, Jainkoko Andra Mari eleiza eta San Paulo ermita egon zaneko gurutzetik igaro eta Arrietako plazara itzuli.

Horra ba, gure bazterrak ezagutzeko aukeratxo batzuk.
Guztiok zagoze gonbidatuta.



Honako argazki hau Euskal Herrian dagoen danimarkar kolonia batekoek bialdukoa dogu. Danimarkarrok gabontan Arrietan izan ziran, gure herria aukeratu eben-eta alkarragaz egon eta urteko bilera egiteko. Argazkiagaz batera bialdu daben gutunean dinoenez Arrieta eta inguruko parajeak sano gustatu jabez.

Ipuin kontalaria: aurtengo irakurketa lehaiketako sarietako bat



Ingurumenaren eguna maiatzaren 9an.



GAMIZ-FIKA

Euskadiko Abeltzaintza Ustialekuen IV Txapelketa

Euskadiko Abeltzaintza Ustialekuen IV Txapelketa egin zan joan dan maiatzaren 6an Gamizen. Egun horretan, Gamizko frontoi inguruak abeltzaintzarako erabiltzen diran makinak eta erremintak erakusteko egokitu ziran, eta bertaratu ziran guztiek traktoreak, fardoak egiteko makinak, uzta biltzeko makinak...bertatik bertara ikusteko aukera ezin hobea izan eben. Eguerdi alderako erakustaldi praktiko bat be egitekoak izan ziran baina botatako euriagatik lurra zikinegi zegoela-eta, azkenean, ezin izan zan erakustaldirik egin. Halanda be, antolatzaileak pozik agertu ziren aldian-aldian EAEko herrialde batean egiten den txapelketa honek gurean izandako harrera onagaz.



NEKAZARI AZOKA

Etorri zaitez! Guztiok zagoze gonbidatuta!

BIZKAIKO JANGAILAK

GAMIZ-FIKA



2004. Maiatza 30 Mayo

BERTAN JATORRIZKO IZENDAPENA DUTEN PRODUKTUAK, GAZTA, SAGARDOA, TXAKOLINA, OGIA, EUSKAL PASTELA, TALOA ETA TXORIZOA DASTATZEKO ETA EROSTEKO AUKERA IZANGO DUZUE.

.....

ARTISAUTZA-LANEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA

.....

ANIMALIAK, BERTOKO BEHIEN ERAKUSKETA.

.....

“BETEGARRI” KIROL ELKARTEAREN ESKUTIK, HERRI KIROL EN ERAKUSKETA, GAZTETXOEK ZEIN NAGUSIEK DISFRUTA DEZATEN.

.....

ETA, AURTEN, BELAR-METAK NOLA EGITEN DIREN ERE IKUSI AHAL IZANGO DUGU.

PRODUCTOS DE BIZKAIA



BIZKAIA
GAMIZ-FIKA
OGIA



URA XXI.MENDEKO URREA

Egiten dozu ezer ura aurreztuteko? Zer?

Ura egunen batean gastatu egingo dala pentsatzen dozu?

Zer egin behar dogu behar baino ur gehiago ez gastetako?



ANE ITURREGI
(GAMIZ-FIKA)

-Bai. Haginak garbitzeko baso bat betetzen dot uregaz, eta gero haginak garbitzen dodaz, ur hori aprobetxatuz. Eskuak garbitzen dodazenean be, ura jaboia kentzeko bakarrik zabaltzen dot.
-Nik pentsatzen dot ura beti egingo dala.



ANDER OJANGUREN
(ARRIETA)

-Bai. Behar ez danean txorrota itxi egiten dot (bainua hartzen dodanean, haginak garbitzen dodazenean...)
-Ura ez da amaituko, ur asko dago-eta.



YUNE MALLONA
(FRUIZ)

-Bai. Bainatu beharrean dutxatu egiten naz eta holan ur gitxiago gastetan dot. Haginak garbitzen dodazen bitartean be txorrota itxi egiten dot.
-Bai. Guk txarto aprobetxatuten badogu, egunen batean amaitu egingo da.



IRATI LARRINAGA
(MEÑAKA)

Dutxea hartzean, ur iturria itxi, xaboia emoteko. Lorei behar daben ura baino ez bota. Haginak garbitzean, ur txorrota zarratu, urak bizitza emoten deusku eta.

DENPORA PASAK


HIZKI SALDA

Ondo bilatuten badozu, Euskal Herriko zazpi uriburuak topatuko dozuz.



ITZALAK

Asierrek eskulanak egiteko honako artazi honeek erabiltzen dauz. Itzal honeen artetik, zein da Asierren artaziena?



(Denpora-pasa honeek Mantangorri gehigarritik hartu dira)

ESAERA ZAHARRAK

Maiatzean kuku, garagarrilean mutu.

(*Atsotitzak, Gotzon Garate*)

Maiatzeko euria, urte guztiko ogia.

(*Atsotitzak, Gotzon Garate*)

TXISTEAK

Urtean behin igotzen da On Kanuto abadea pulpitora. Herriko jaietako meza nagusian. Aurten be, pulpitora igo eta sermoia egiten hasi da:

-Anai-arrebok: Beldur naz! Beldur naz!

Eta azpitik Modestok:

-Ba, ona dago berori, ni igo nintzen gaztainondora igotzeko!

(*Txorakikeriak, Kike Amonarriz, moldatuta*)

-Zelan jakin nor dan Adan paradisoan?

-!!!

-Bera da zilborrik ez daukon bakarra!

(*Txorakikeriak, Kike Amonarriz, moldatuta*)

**ALE HONETAN PARTE
HARTU DABE:**

**ZURIÑE GOTI
JOSEBA TERREROS
MAITE TORREALDAI
ELIXABETE URIARTE**

**LAMIÑEK
ITTURRIDXEN**

Ku(e)ba bat edo euki eden an e... itturidxe..., ester-tzan, lengo estertzie baiño goratxuau. Oin kami-ñoa..., ta estertza sarran bittartien. Eta eun urte edo gidxau ixengo dire ordurik ona. Edo gidxau! Igual ixengo dire berreun be.

Da orrasidxe itxi an Lamiñaneko..., orraus-ten ibilltte sienela ba. Da txikidkek ixetan i sien lamiñok. Da orrastuten..., da orrasidxe astute itxi edo. Da an gero beidxekas edo dxoan sanan batek, orrasidxori artu. Da etzera ekarri edo, berak falta edo. Estapa se ixengo san ba! Eta esatzenela urrengo dxoan sanien e...:

*"Ekarten espaostana
nire intzuskorrasidxe,
nik kenduko nin
eurrien daroan bei txikidxe"*

Ori, gurien aittek eta amak eta esate (e)den.

(Jon Uriarteren,
*Fruiztarrak berbetan
liburutik hartutakoa*)



**ARRIETA • FRUIZ
GAMIZ-FIKA • MEÑAKA**

**EUSKARA ZERBITZUA
ZURE ESKU**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila
Euskara Sustatzeko
Zuzendaritza Nagusia